Gixon koitxadue ibilko da ařastaka... ¿da zer?.. Sananderera alegaten dieneko kontue ta erasoie omon biar andrieri. Nik eztaix gixon batzuek zelakuek dien. ¡An dabil neu-pe gixona kontramaixu... baye... preguntetie baño eztau areri i-a zemat gasta dauen! ¡Ariñ omongo leki arek erespuetie!.. ¡Con que... egun baten entseraduek asko paga dauela esan notzalako... esauzten ze, bera lotuko dala etsien da neu yueteko nabegaten, frakak yantzitxe ta... ¡olal! Baye... ondo kontsagra ezkeru, erosoie be bakoie gixon koitxaduek... zeitxik eze... mariñeruen bixitzie ezta bixi modue. (Entzuten dire gafalziak ezkefeko aldefik). ¡Andrak!.. ¿zer da oiñ be pasaten dana? (Zutundu ta doa Tofonteru ertzera, porturantz begira). Gixonan pelekadie da portuen. (Indafez). ¡Ene... il-dxeu! ¡Eh... ori ezta modue ta! ¡Zelako otsa omontso gero! Baye... ¿nortzuk die eurek? (Indartsuago). ¡Andrak... agaraixue oreri gixonari! ¿Non die aguasilek?.. ¡Eh... ori ezta modue ta! ¡Karanbo! ¡Lotsabako zar ori... modu oretan mangateko gixona! ¡Baie, Anjela, ¿Nortzuk die?

ANJELA. — (Bafullk). Nik eztaix, alabatxü, il bidaue bata bestie ta. Etsepekue ta die, antza.

BELENTZI. — ¡Ondo etxen daue... oren edadeko gixon zarak olan ibiltxie... laster maspasatuteko moduen dauz de!.. ¡Lotsabisteko zarak! (Jesafi beite baitro). ¡Bestelako San Juan besperie dakoye!.. Posture txiki bet eiño neki oiñ be kustiñuen bat bakardiela. ¡Jangoiko maitxie!.. ¿noix die baye bertoko gora-berak akabateko?

Batak... au dala; bestiek... ori dala, lotsatu eleitxe beñe-peññ Bermiokue dala bat esaten. Bakitx neuk goñoto gogoñien bixi diena batzuk berton. Beste eñidxetan, eztaix nik zer dauen... baie kustiñue da, bata bestientzako maitxetasun geidxau dauela... (Oyu ta santzoak entzuten dire eskumatik). ¡An... asi die Talagotxiko atsuek suek biztuten! ¡Doña Belensia... basta por oy de trabajar... y a ber los fuegos de la calle de usté! (Zutundurik, batuko dau sarea otzarara). ¡Uju... uju!.. ¡Biba San Juan alegre!

BERATUTEN DA AGERTOYALA




TEJAL

ZORGINKERIBAKO EPAYA

JOLANTZERKIA, GERTALDI BATEN

BERMEOKO KARMELDAR LEKAIMIEN IKASTOLAN ANTZEZTUA IZAN DEITEN IDATZI NEBAN
JOLANTZERKI AU. BAITA BERE BERMEOKO «IDEAL SALÓN CINEMAN» 1925 - GAREN
URTEKO ARATUSTEATAN ANTZEZTUA IZAN ZAN.



JOLANTZERKIA GERTALDI BATEIN
ZORONKERRIBAKO EBAYA

DEMBROU KAMERON I STAMEN KANTONAN ANTILIDA DAN HINDIA BELAN
JOLANTZERI TO BATA DAN BUKANNO SIKAL SIKAL GEMAR 1931-1932
MUSEO NATIONALE ANTILIDA VAN IND.

AGERKIDEAK

- KOSEPA.
MIKELA.
ANTONI.
DOMINGE } Afantzale - emazteak. Befogeitik befogetamar urtera ingurukoak.
- JULITXU. Amar-amabi urteko neskatotxo, Kosepan alabea.
- BITXORI. Amasei urteko plasa-neskatil urten bat, baita bere Kosepan alabea.
- KASIMIRE. Irurogei urtetik gorantzko atsotxu bat.



A O E R K I D E A H

MARIA

MARIA

ANTONIO MARIA DE SALES

ANTONIO

DONATE

LUIS

BITON

MARIA



ZORGINKERIBAKO EPAYA

Afantzale etxe bateko eskaratzak antzeztuko dau agertokiak. Azken zapiak iruditu bel suetako sugalnak, paper margoztu ta guzti. Eskumat-aldean ikusiko da izkindegi polit bat, fresna ta ontzi batzuek bere ganian diriala. Ezkefaldean kuma txiki bat egongo da, ume galxo bat, zapi zuri bategaz estalduta, bere bafuan baleuka lez. Erdian, eskaratz mai bat, Iru edo lau aulki bere inguruan diriala. Neguko igande afatsalde bateko iluntzeran jazoten da gertaldi au.

Agertoyala jasoeran, agertzen da Kosepa apari-izki bat gertatzen eta batera kumeari eragiten. Emakume garbizale ta eraztua da Kosepa.

KOSEPA. —(Ixllll abesten). Txori uretxindoña

udan da abeslari,
orduban bai - daulako
basuan janari.

Neguban ezta agiri,
iez al-dago, ba eri!
udan ba-da agiriko
naz ni gotasauko.

Geure eñi - basuak,
geure mendi - zelayak
lagunik maitentzat auke
udabañi - txorija.

Samur-samur abestu,
alai geure gogua,
poztu deiten eñija
erdu ona beti.

(Ixtalaldi luzea).

MIKELA. —(Bañuko aldetik) ¡Kosepa!

KOSEPA. —Bai: erdu auñera, nor zarien.

MIKELA. —(Sartzez). Ekazu perejil oñitxu bet. Iru txikidxen makulue dakot saltsa berdien imitxeko da iñondik pe eziñ topa dot perejilik. Imie bota dot sentimo bikuegaz, denda bañire, ta eztauela ta etor yast atzera.

KOSEPA. — (Ontzi txiki batetik artu ta emon beyoz perejil oñi bat edo bi). Txaridxeri yatekue erueten yuen nayenien kendu-tsat Kasintxeri.

MIKELA. —(Eskefik be emon gabe). ¡Ene... ezer be eztot yakin! ¡Txarto eidakozu imie!

KOSEPA. —¡Or dau, koitxadu ori!

MIKELA. —¿Zer dakotzu be?

KOSEPA. —Bisidxuekaz asi - yatzu lelau; da gero buruti-berakuek omon-tsonagaz, nik eztaitx, alabatxü, bizirik be zelan dauen.

MIKELA. —Eztot ezer be yakin. Auzokuek garienik be ezin esan leitxike.

KOSEPA. —Aur daruez zirkiñik be eiñ barik idxe amabosta.

MIKELA. —¿Zetan zauze begiskue eiñ barik? Ni zuelez baneitxike, enekldxo itxiko eiñ barik.

KOSEPA. —Nik oñeri gauzeri etzat omoten, Mikela, kreditxurik.

MIKELA. —¡Bestelakue zauz! Gure Pedritori, urungo baten, santiritue istindiko baten kendu - tso; eskuegaz kenduiko moduen.

KOSEPA. —Oñeri gauzeri siñeskerie omon baño, obeto eiño lekigu guk, Mikela, erlejiñoako gauzetan fede geidxau oki.

MIKELA. —Oki leitxike, oñeitxik gora-bera, elixeko gauzeri be biardan siñiskerie.

KOSEPA. —Ez, Mikela, Jangoikuen legeko gauzek ezte oñek eta.

MIKELA. —Ba nik, Kosepa, diñotzut: imiek edozer dakoyeneko deitxuko-tsatela Kasimireri, bada-ezpada baterako be.

KOSEPA. —Alan etxen-zue zuek. Urunguen be zu te Antoni Morenie Mundekara yuen eizarie.

MIKELA. —San Antoniora guezela, bide-batez yuen garie zer diñoskun ikusten.

KOSEPA. —Auri etxen-zue zuek: Jangoikue ofendidu auñelako geuzekaz.

MIKELA. —Tire; etxamon oñeri. Entzuixu, Kosepa, enorabuenan ei zauze.

KOSEPA. —¿Zeitxik?

MIKELA. —Neskatue eidxabiltzue Lapurtxunekuegaz. ¡Bestelako mutile erueten dau, olan bada!

KOSEPA. —¿Ze mutil edo zer diñostazu, Mikela?

MIKELA. —Oñeitxik ez asañatu, Kosepa; eñi guztiko miñien dabilen gauzie da ta.

KOSEPA. —¿Zelan enai asañatuko, desgustozko berbie diñoztazu te?

- MIKELA. —Beñepeñ, gaur be, segun gure neskato zařentxuek esan dauen, eidxuek etxen ibili eidie muxiken.
- KOSEPA. —¡Ori be badiñostazu, Mikela!
- MIKELA. —Nik eztakltx ezer, neskatuek ekardauena baño.
- KOSEPA. —Gure mořoyek yakitxen badau, eztot pentsa be eiñ gure zer pasako dan gaur gure etsien.
- MIKELA. —Euk dakona erue. Ez esatie baño eztakozu.
- KOSEPA. —Onek ez-tie baye ez esateko gauzek; danok eiñ birdu alegiñe imieri bier dan krientsie omoteko ta.
- MIKELA. —¿Notaki be zer suerta leitxiken? Akaso bertan topako dau suertie.
- KOSEPA. —(Asafez) ¡Baye, Mikela, esaiztazu berbie, zeure kontsentzidxen bien! ¿Arek imiek dako edadie ondiño orrelako gauzetan pentsaten ibiltxeko? Obeto eiñgo leki etseko gauzetan ardure geidxau imiñi, eskiñerik eskiñe ibil barik, beran burueri erespeto guztidxe kentzien.
- MIKELA. —Etxamoixu, gaztien gauzek diez orrek eta. Entzuixu, Kosepa: Antoni Matralegaz dakozuen kustiñue galdute eidakozue.
- KOSEPA. —¡Tire ba, ori be esan badaue!
- MIKELA. —Erekan entzun eikue da; ta Gernikeko juesak eidxatortzuez laster enbargue etxen.
- KOSEPA. —Datozela; bakoye enbargue non eiñdxe. Baye guri enbargue eiñ baño lelau; bate-batek paga birko dau; eurek dabiltez bile ta.
- MIKELA. —¿Zetan zauze kaderak altsa-barik? Arek urunguen be zortziretako kediegaz batera ibildxie, alabatxü, iru elixetako ur bedeinkatuek botaten zeuen etseko atien.
- KOSEPA. —Obeto eiñgo lekidxie ur bedeinkatue botaten ibili barik,

- bekokidxen artun goixien-goixien, Jangoikuek omon deidxuen buruko argitxasune, ondo itzutute dauz de.
- MIKELA. —Da ganera, orek baño geidxau be entzun dotaz.
- KOSEPA. —¡Gauze asko entzun-zuz!
- MIKELA. —Gaiien gaiien batzien eidle Antoni Matralen etsien bera ta beste orostokidun bi, euren maldesiñuek etxen.
- KOSEPA. —Bakigu guk, arek dabilien guzfidxe, da zelan pasadan egun baten be gaueko amabi-amabidxetan ausi dauien atapostan aurien, lapikuek oridxoiz beterik; baye guk oñeri gauzeri etsagu kasurik pe etxen.
- MIKELA. —¡Ai alabatxü! ¡Aren maldesiñuek ondo ikaratu leidxe! Urunguen be maldesiñurtike ibil-dxe a Toronteruen.
- KOSEPA. —Berantzako txarau, maldesiñurtike badabil. Señalie da, gauzek ondo etxatorkezana.
- MIKELA. —Banue etsera, Kosepa, makalue dakot ondiño beratuten imitxeko ta.
- KOSEPA. —Bai, zuez. (Doa Mikela. Aldi baten ixilik egon da gero) Auñelako andrak die, beñepen, euren gora-berakaz eñi guzfidxe galtzieko kapaz. Niri ezer atarakostela pentsaten on bada, ondo engañeta on da. (Dator Julitxu).
- JULITXU. —Ama, mojik esan dau domekatan be beti-beti yueteke Kolejidxora, Aratustietan komedidxek ongo diela ta.
- KOSEPA. —Bai, politxe; beti-beti yuengo zara zu, aman lagune ezateko.
- JULITXU. —Dortñien be eñie ta on die. Neskato bateri be puntilezko estanpiek urten-tso.
- KOSEPA. —Kumieri erañ, Julitxu.
- JULITXU. —Ni beti yuengo nai, ama.
- KOSEPA. —Bai, laztana. (Artu bei Julitxuk zapi zuri bat bere eskuan eta bere egaleko arijak kentzen asi belte, egalun bat egiteko asmuaz. Bat batean kumla gorabera-

tuko dau). Gaur ez eĩn punturik, Julitxu, domekatan ezta etxen bialrik eta. Kanta Juanitotxuri, zeuk dakixuzen kanta politzek.

JULITXU. — (Abesten). Basa-txoritxu mustur-luziak

ez yuan iñora biā,
 aingerutxurik biar ezkerō
 oā or gure mutiā,
 Bere musuba eduā da ta
 sua bijotz ta ezpanak;
 berton urturik bixiko dira
 nire bulaña ta zanak.

¡Ai, nok leukezan uřezko ořatza,
 uře-miesa ta arija,
 uřez asi ta amaituteko
 ume onentzat jantzija!
 Lařosatxuak bost oři daukaz,
 klabeliñeak amabi;
 gure umea gura dabenak
 eskatu bere amari.

KOSEPA. —¿Bitxori nondik dabil be, Julitxu?

JULITXU. —Nik eztot ikusi. Kolejidxora dabilen neskato baten aiztiak esan dau, mutilekaz ibil-dxela gaur be yantzan.

KOSEPA. —Ez kasurik eĩn; zu ez yuen ořelako lekuetara.

JULITXU. —Iñoiz be enai ni yuengo, ama. Mojiek pe esaten dau ez yueteke, pekatu etxen dala ta. (Ageritzen da Antoni, Koseparen

ezkon-afeba, edafea buru gañean dabele).

ANTONI. —¡Nondik natořen be eztakitx, Kosepa!

- KOSEPA. —¿Zer ba?
- ANTONI. —¡Lotsatute nator zure alabiek eiñ-dxostenagaz!
- KOSEPA. —Oin be badiñostazu desgustozko berbie. ¡Eztaitx zer ikusteko gauzen beragaz!
- ANTONI. —Iru-ituñidxetan edarñe garbitxuten nauela... beituden dot nor dauen ure edaten, da non ikusten doten izerdi lamatan, mutile albuen dauela. Inok pe ez entzuteko moduen diñotzat eze: ¿Bitxori, ori de modue?... da eztiñost: ¡Ondo! ¿Zuk agindxuten zu le? ¡Aur ori eñegiñiori!.... Ori berbiori niri arek esateko..... neugaz okikotxuz, ikusten dotenlen. Nik etsat parkatuko. Ez pentsatie dako olgetan dabilenik.
- KOSEPA. —Zoridxoneko muxikie dala ta eztala, bakitx neuk batzuek galdu bi-diena berton. ¿Non die eñiko alkatiek? ¿Edo zelako eñespetue dau emen eñidxon?
- ANTONI. —Eztozu, Kosepa, beste eñemedidxorik okiko, Bilboko mojatara erutie baño, ori ezta modue ta.
- KOSEPA. —Esan da dakotzatñe señorari, olan segiduten badau, artun de eruen deiztiela.
- ANTONI. —Zeuzer eiñ birko-zu; au ezta modue ta. Eskiñe guztidxetan ezta besterik entzuten: Kosepan alabie gora ta Kosepan alabie bera baño.
- KOSEPA. —Euk pe kulpie dakona, Antoni, beti beran fabore oten zaralako; da zuk, tie zaran partez, gogoñ ein bilekitzazu.
- ANTONI. —Egidxe da, nik beti defendiduten ezan dotena, onien pentsaten ezan dotelako konkistetie; baye ondo engañeta on nai. Eztotzat nik, auñerantzien, arpire be beitu-ko. ¡Lotsabaga, deskaradie! Famelidxeri kondute guztidxe kentzien baño eztabilena!

KOSEPA. —Bakitx neuri, beñepeñ, osasune kendu bidoztena.

ANTONI. —(Aldakera). Gauze bat esan bitzut, Kosepa. Aratsaldien eguzkidxe artzien Toñonteruen on garanien, pasa da bertatik Kasimire, da zeu konfrome ezpa-zauz be, nik esantzat datoñela zortziretako sasoyen zeuen etsera.

KOSEPA. —Nire gixonak eta zuk enpeño gogoña dakoze begiskue eiñ bi-drakola imieri; da zeuek alan gure bozue, eiñ deitxela zeuen borondatie; baie eztoz nik parterik artungo ezetan.

ANTONI. —Aprensiño lar dakozu, zuk, eta eixu mesede ixilik otie. Laster otorko da, Kasimire, zortzirek idxe die ta; ta datoñenien, neskatotxue bota-eixu geure etsera abixeten, salto baten otorko nai txe. (Doa Antoni. Kosepak, negartsu, auñera jafallu bel bere zeregiñetan eta Julitxuk abestuko dau):

JULITXU. — Aurtxuoi, egik lotxo bat
ta emongo deutzut gozua;
aitak bat eta amak bi,
ta Goiko Jaunak amabi.

¡Lo !

Lo, lo, aingeru artian,
mundu txatxañaz aztuta;
zoridxona Goyan dago,
bian eztoz miña baño.

¡Lo !

KOSEPA. —¿Non ikasten-zu, Julitxu, oñek kanta politxok?

JULITXU. —Neuk entzun de ikasi. Niri etxataz gusteten beste neskatobatzuk kantaten dauienak, pandereteran kantak.

Niri elixeko kantak eta gusteten yataz; kolejidxoko kantak eta.

KOSEPA. — Bai, Julitxu; aurrek ikasi zuk beti, gero andra on bat ezateko. Aur dabil Bitxori be desgustuek aitxeri txe amari emoten, mojatare yuen gurezik ibil-dxelako; baye beste moja batzuk-añe yuen birko dau olan segiduten badau. (Sartzen da Bitxori, oso apañdurik. Kosepak asafez diñautso).
¿Non on zara, alabatxü, orain artien? ¿Esaiztazu nondik ibil zaran aratsalde santu guztidxen edo nondik zatozen?

BITXORI. — Mundeka bidetik yuen garie Eletori txe bidxok.

KOSEPA. — (Indartsu). ¿Nongo Mundeka bidetik edo zer diñostazu? ¿Esaiztazu non on zarien? ¡Maskarien arpidun, lotsabagiori!

BITXORI. — (Lotsagabekeriz). Mundeka bidetik yuen nayela etzut esan.

KOSEPA. — ¿Nongo erespette dakostazu, alabatxü? ¡Jaungoiko matxie! ¿Nondik edo zelako lagunekaz batziendxat? Esaiztazu zer pentsaten dozun edo zer etxeko gauzen zeugaz.

BITXORI. — ¿Nik dakot ela kulpie? Danok zauze neure ala, baye ez pentsa ni ikaratuko nozuenik.

KOSEPA. — ¿Ori de iñori omon biardxakon erespuestie.

BITXORI. — (Lotsagabekeri andlyagoagaz). ¡Ondo!

KOSEPA. — (Artzen dau mal inguruan dagoen aulki bat eta yaurtzen deutso. Bitxorik lges egiten dau) ¡Erdu etsera, alabatxü, etxera erdu! ¿Otorko zara etsera, Bitxori? Pagako-zu gaur ba zuk-pa. ¡Alan eiñgo-tzut! (Txafamikatuteko siñua). ¡Zuk takozu gure erenkuriel! Aur dakozu zeure nebie idxe-ilien, da ezara ezan kapas etsera buelta bat be etxeko, aratsalde santu guztidxen. ¡Itxi geldik! Pagako-zu zuk gaur, aitxe

datoñenien; ez pentsatie dako zu esanbarik lotuko na-
yenik. Zue z emetik eta kenduixuz oñek eñopok, iñor
otoñi baño lelau. (Doa Bitxori soñekoak aldatuten. Itxaron aldi on bat).

JULITXU. —Ama: Kanuto ta beste mutil batzuk gaztañetan yuen die
Bilbo bidetik. (Del egiten dabe atean).

KOSEPA. —Bai: erdu auñera.

KASIMIRE. —(Sarlzen) ¡Aimari prusime! Antonik botaten nau bertora;
imie dakozule geixorik eta.

KOSEPA. —Or dau koitxadu-ori aspaldidxon, Jaune miserikordidxen.
(Julitxuri) Tire, politxe, tie Antoni-dxenera ta esan Kasi-
mire dauela emen da aiñ-aiñ otorteko. (Doa Julitxu). Ye-
sañi Kasimire.

KASIMIRE. —Ez; imie ikusi bidot lelau, zelan dauen. (Uferatu beltez kuma
ondora).

KOSEPA. —Añatsalde gustidxen dakot lo, da pozañen nau. Lotara
omoten badau, diño medikuek, eskapako dauela.

KASIMIRE. —Medikueri ezaixu kasurik eiñ; Antoni Matralen malde-
siñuek baño etxatzuz oñek eta. Neuk diñotzutena eixu.

KOSEPA. —Tire ba; emen ikusko da gauzie.

KASIMIRE. —Zuk eztakozu federik bape, Kosepa.

KOSEPA. —Oñelako gauzetan ez beintzet.

KASIMIRE. —¡Ai, alabatxü, bestelako iñusentie zauz! Tire; ekañixuz
neuk diñotzutezen gauzek: manta lodi bet, bañidxe
bada obeto, sartena estañue urtuteko ta ure palan-
grana baten.

KOSEPA. —Obeto ezango da Antoniri itxarotie, nik eztot gure ezetan
be sartun de.

KASIMIRE. —¡Bestelakue zauz! (Yafi belte). Entzuixu, Kosepa: ¿neskatue
nondik yabiltzu be?

- KOSEPA. —Or dau eropak kentzien.
- KASIMIRE. —Urtenei dabilela esan dostie.
- KOSEPA. —Bai, Kasimire. Gaurko imiek desgustotarako baño ez tie.
- KASIMIRE. —¿Zeitxik eztozu yostera sartzien? Neuk esango-tzat Modestari, gure bozu.
- KOSEPA. —Etxako areri proportsiñue falta; baye ezta kotzu arek bestetarako afanik mutilekaz ibiltzeko baño. Atzo be edeñak artun de dau a, aitzen eskuetatik.
- KASIMIRE. —Zerikusidxen ikasten eidaue Modestagaz.
- KOSEPA. —Belentziri dakotzat esanda saregiñien ikasteko. Bidxar-tik auñera da asteko.
- KASIMIRE. —Asko da zeuentzako, Kosepa, ori baño ardure geidxau ez imitxie neskatue nondik dabilen yakitzeko.
- KOSEPA. —¿Guk zer eiñgo-tsagu be, Kasimire, gure esanik eztau eiñgure ta? (Betoz Antoni ta Julitxu).
- ANTONI. —¿Denpora asko da etorzarana la, Kasimire?
- KOSEPA. —Ez; ontxe-ontxe otor da.
- ANTONI. —Bertorantz datoñela topa dot Julitxu bidien.
- KASIMIRE. —Tire; ekañixuz, Antoni, bier-dizen gauzek; onek etzu ezer be eiñ gure ta.
- ANTONI. —Kopla lar dako oñek da gauze on gitxi. Oñeri ez kasurik eiñ, Kasimire. Neuk ekarkotaz istindiko baten biar disen gauze danak. Tire, Julitxu, alboko Dominge-nera ta esan datoñela aunarte anpurtxu baten, tien partez. (Doa Julitxu) ¿Beraunik ekarzu le, Kasimire?
- KASIMIRE. —Bai; amen dakotaz zati bi. (Burdintzali bat artuta uferatuten da su-tondora, beruna urtuten balijoalez. Antonik dakar gela batetik manta lodi aundi bat. Arte bitartean agertu beltez Bitxori, Dominge ta Julitxu).
- DOMINGE. —¿Zer da pasaten dana ba?

ANTONI. — Begizkuena etxen guez imieri, txe lagundu bi-zu.

DOMINGE. — Bai nik, alabatxü, pozañen be.

KASIMIRE. — (Sufondotik). Entzun, Antoni, berbie. (Ixilean). Esaidxona Kosepari artun daidxela imie.

ANTONI. — Oñek eztotzu artun gureko. ¿Bardin de neuk artutie?

KASIMIRE. — Obeto ezaten da imien amak okitxie; baye besterik ezien, zeuk artun mantien baruen.

ANTONI. — Etxamoixu; neu parako nai txe. (Artu bel Antonik umea la aulki txiki baten, jañi belle. Kasimirek estalduten difuz manteagaz).

KASIMIRE. — Aitxiaren, Semiaren, Espiritu Santuaren ixenien. Amen. Jesukristoren pasiñuetxik eñesa daigun kredo bana. (Otoizka sufondotik). Ama Birgiñieri eñesa daigun Salve bana. (Dator sufondotik burdintzalijan berun urtua dabela, Julitxu ta Bitxori, ikusgure, uferatu beitez).

DOMINGE. — Kendu zaitxez, Julita, estorbu etxen on-barik.

KOSEPA. — Erdu ona, Julitxu.

KASIMIRE. — Artun, Dominge, palangranie uregaz, da listro ogon beraune botaten doteneko. (Asten da bere eskariak egiten). «Santa Anak eiñ zauen Maridxe. Maridxek eiñ zauen Jesus andidxe. Kenduixuz imetxu oneri dakozen enfermedade guztidxek. Santa Agueda gloriozie, azur eta mamiñetako abogada andidxe: kenduixuz imetxu oneri dakozen enfermedade guztidxek. (Iru gurutze egiñaz jaurti bel lufaspiñera berun urtua. Artzen dau gero uretan gogofluzko berun zati bat eta diño). ¡Amen dau begizkue

ANTONI. — (Burua mantapetik agertzen dabela). ¿Agertu de la?

DOMINGE. — Bai, amen dau. (Aldizka euren eskuetan artu beye ikusari ain miragarija).

ANTONI. — Aur dako zu be, Kosepa, nik esaten nauena. Oñek eztau siñeztu gure ezaten baye.

- BITXORI. —(Jakinal) ¿Zelan igarten da ba?
- KOSEPA. —(Bitxoriri). ¡Kendu zaitxez ortik, lotsabagi-ori. Oñelako gauzeri imingo-tsazu zuk zeuri tokaten yatzuneri baño atentsiño geidxau! (Asafez beterik kentzen deutso besartetik umea Antonri ta musu laztan bat emonaz seaskan jartzen dau).
- KASIMIRE. —Neuk omoten-tzut berbie, Kosepa, imie laster osatuko yatzune.
- KOSEPA. —Osatuko da Jaungoikuek gure badau; baya ez zure koplakaz.
- ANTONI. —Oñeri ez kasurik eiñ, Kasimire; esan-tzut len be oñek eztakola federik onelako gauzetan.
- KOSEPA. —Nik eztakot beste federik, Jaungoikuen legeko gauzetan baño ta berak gure dauena ezango da.
- ANTONI. —Tire; etxamoixu, oiñ eindxe dau te. Neu konponduko nai zeugaz, Kasimire.
- KASIMIRE. —Eztakozu priesarik.
- DOMINGE. —Entzuixu, Kosepa. ¿Juana Bizarñen alabiegaz ezer oki - zu le?
- KOSEPA. —Guk ez, Dominge.
- DOMINGE. —Iñon dienak esaten ibildxe urunguen zuekaitxik portuen, da pentsa eiñ-dxot zeuzer oki-zuela.
- KOSEPA. —Gugaz eztau arek ezetariko gora-berarik oki.
- ANTONI. —Antoni Matralñen suingidxe yatzu te kandela bigaz eiñ gureko dau argi.
- DOMINGE. —Eñsoye dako zu, alabatxü, etxast akorda be eiñ. Pasa dan domekan yuen die lelengo deidxerak.
- KASIMIRE. —Datoñen sapatuen zortzi eskonduten die.
- KOSEPA. —¡Zoridxoneko ezan deitxezela; guk etzague goñotorik eta!
- DOMINGE. —¿Euren kustiñuegaz, zelan zauze ba?

- KOSEPA. —Jaungoikuek gure dauena ezango da.
- DOMINGE. —Alegiñe, beñepeñ etxen daue ba.
- ANTONI. —Bai, Dominge. Enpeñuekaz irebazi gure dau arek kus-
tiñue; baye eztotzoye balidxo ezango.
- KOSEPA. —Aur dabiltez, oin be, zorgiñkeridxe etxen; baye ez
pentsa gu ikaratuko garielik.
- KASIMIRE. —Ez zaitxez, Kosepa, arekaz asko fidxe; neuk takitx ondo
zuen kontra mengantsa gogoñen bat artzioko ustie
dakoyena ta. (Zarata itzalgafi bat entzungo da).
- OROK. —(Ikaraz). ¡Ene! ¿Zer da?
- KOSEPA. —¿Zeren ikarie dakozue? (Beste zarata itzalgafi baten ostean, jausten
da antzokijaren erdira izugafizko ofaztoki andi bat, galartzu goñi bat dindi-
lizka dabela. Agerkideak iñes egiten dabe ikuskeran).
- OROK. —¡Ene bada!
- KOSEPA. —(Ofastokija oiñagaz urunduten dabela). ¿Zeren ikarie dakozue, di-
ñotzutie?
- ANTONI. —¡Ez zaitxez erime, Kosepa, prakagoñidunek dauz ofos-
tokidxen baruen da!
- KOSEPA. —Ez ikaratu, Antoni; ofek eztako ezer baruen da. Fede-
bakuek ikaratuteko baño ezte ofek gauzok. Ofelan-
go gauzerik asko eiñ-dxeue gu ikaratuteko; baye da-
na alpeñik. (Oratuten deutso ofaztokijari suetako sumatzogaz, esanaz):
Etzi, Bitxori, da botaixu Bastañetik bera. Tenasakaz
eskue loitxubarik.
- BITXORI. —¡Ni itzaldu etxen nai!
- KOSEPA. —Ofelako gauzek itzalduko zaitxuze zu; ez beste gauze
batzuk.
- JULITXU. —Neuk botakot, ama.
- KOSEPA. —Zuk ez, laztana; berandu de zuretzako ta. Oiñ bota

sastar-kajara, neuk botakot bidxar goixien sastañan kañora. (Safkorkeriz). Oñek pentsa daue onelako gauzekaz kustiñue irebazko dauela, kontsentsidxen da legien kontra; baye ondo engañeta on die. Da ikusixuen oñek zoñginkeridxok ezetako balidxo eztauiena, atzo goixien oki du Gernikeko abogaduen abixue, zelan kustiñue irebazitxe dakun.

ANTONI. —(Pozez). ¿Ezta ezango egidxe?

KOSEPA. —Bai, Antoni; egidxe da.

ANTONI. —¿Zetan on zara ba niri esan barik?

KOSEPA. —Gixonak eta bidxok pentsata oki dulako ezer ez esatie, setentsidxe otoñi arte; baye ezin aguanta ezan dot neure poza.

DOMINGE. —¡Alegraten nai!

KASIMIRE. —¡Enhorabuenan zauzel!

KOSEPA. —Aur dako zu be, Kasimire, zeitxik estakoten nik federik munduko gauzetan, Jaungoikuen legekuetan izan ezik; da auñerantzian ez otoñi, Antoni, gureñe zoñginkeridxekaz, guk eztu hier beste gauzerik, arimeko bakie ta gorputzeko osasune baño ta. (Jarten da seaska ondoko aulkijan da abestu bei bere umeari).

Ene semetxuba,
maite kutuntxuba,
mosu ta laztandu
egik eure amatxuba.

Amaren pozkari

eu az ben - benetan;

lo egik, ene kutuna,

neure besuetan.

Orok.—

Ene semetxuba,

maite kutuntxuba,

mosu ta laztandu

egik eure amatxuba.

Amaren pozkari

eu az ben - benetan;

lo egik, ene kutuna,

neure besuetan.

EZ TAL ZAPIJA

ESKILATUA
PENTSATEN ZAUZ!
Ez da horretarako ezarritako
Eskilatuaren Ardurak
Eskilatuaren Ardurak

¡ONDO PENTSATEN ZAUZ!

ALKAÑIZKETA

IONDO PENTASTATEN SALUS

ALKARIZKETA

ESKINTZĀ. ==

BUSTINTZA'TAR PILAR'i

*Zeu, Belentzin ordezkari eziñ
obeagoa, ixan ziñan "TORON-
TERUAN" deritxon antzerkiari bixi-
tasuna emon eutsana. Antzerki oroi-
gari aren gomutan, eskintzen deutzut
:: alkarizketa au. — EGILEA. ::*

ESKINTA.

BUSINESS DIARY

The business diary is a
valuable tool for the
modern man. It helps
to organize the day
and to keep track of
the most important
events. It is a
convenient and
efficient way to
manage your time.



¡ONDO PENTSATEN ZAUZ!

Agertokiak antzeztuko dau Bermeoko Talagotxi auzoa. Agertoyala jasoeran ez dago inor antzokian. Geroxeago agertzen da Modesta, jostun apaindua, Kostan deritxon amazortzi urte inguruko neskatileagaz. Kostan'ek daroa besapean joski txiki bat. Goiz da: jostunak etxietara joateko sasoyan. Eureka bat-batean agertuko da Antoni, espartzaskia esku baten eta esne tefiña bestean dabela

ANTONI. —¡Agur zeuri! Kasurik pe eñ barik zuez.

MODESTA.—¡Ene... fije be enai eñ! Aunegaz yuen nai berbetan.

ANTONI. —¿Kosepan alabie ezta ori? ¿Yosten asi zara la, alabatxii?

- MODESTA.—Aspaldidxon yabiltzu au neugaz. Andramaidxetatik ona.
- ANTONI. —¿Gure etsera noix zatoz ba, Modesta?
- MODESTA.—¡Nik eztaix, Antoni... idxe burue be atrapa-ostie ta! Bat-tak... noiz zatoz, bestiek... noix zatoz!
- ANTONI. —¡Euk takona kulpie.
- MODESTA.—¿Zeitxik eta *porqué*, Antoni?
- ANTONI. —Gu probiok... atzera itxitxen-zulako.
- MODESTA.—¿Nik atzera itxi? ¡Aunek esango-tzu nik atzera itxitxen badot iñor!
- KOSTAN. —¡Ez... egidxe da! Geure tie be beti dabil pregunte eureneko etsera noix guezen bia.
- MODESTA.—¡Aur dakozu, Antoni, bel Aratostiek diela ta ez-tiela burue atrapa bioztie.
- ANTONI. —¡Tire... itxi oñeri atzera! ¿Gixonan kartarik oki-zu le?
- MODESTA.—Bai... atzo oki dot... aspaldiko partez.
- ANTONI. —¿Zer diñotzu be?
- MODESTA.—Osasunegaz da ondo dauela.
- ANTONI. —¡Alegraten nail Modesta... aspaldidxon nabil zeu nondik ikusiko. Mesede bat eiñ-bistazu.
- MODESTA.—¡Bai nik, alabatxü, pozarén bel (Kostan'i). Tire, Kostan, auñera, beinguen nator da. Artietan... yoskurek kendu areri yaketieri. (Doa Kostan).
- ANTONI. —Geu bixi garan etsie erosteko erie dakot.
- MODESTA.—Etse politxe da. Niri gusteten yast.
- ANTONI. —Baye... karu eskatuten dostie. Ogetamañ mile eñiel.
- MODESTA.—¿Norena da ba, Antoni?
- ANTONI. —Talagotxiko Kosepa Otxoliena.
- MODESTA.—¡Eñrosoye, alabatxü... akorda be etxat eiñ!
- ANTONI. —Nik dirue oki bakot «Caja d'arrosetan»; baye eztof atara gure koñidutxuek kobra arte.
- MODESTA.—¡Bai... zuek politxo zauze! ¡Ondasune naikuegaz!

ANTONI. —¿Ondasune? ¿Nondik Modesta?

MODESTA. —¿Eztakitxela pentsaten-zu le? ¡Zeure koñetieri preguntetia dakozul

ANTONI. —¡Miñe dako arek luzie... ta inbididxe bez txikidxe! ¿Guk, probiok, ondasune non eĩdxe dakule ta?

MODESTA. —Ondo etxen-zu desimuletie.

ANTONI. —Au ezta desimuletie... egidxe da ta.

MODESTA. —Ba, Antoni, nik inbentaiko gauzie ezta... Kasintxenien yosten gauzela berak esan eikue da... iñok pregunte be eĩn barik eta.

ANTONI. —Ara... konfidxantzamentien egidxe esan ezkerro, guk dirue baku... ondiño amabosta be ezta gixonak bota dostena Kardenasetik berogei sentiñ Kale-bañidxetako Indxiñuegaz. Da ganera... amar mile erieleko papela Bankuen kobrateko; baye... areri etzat ukutu gure gixona otoi arte.

MODESTA. —¿Noiz yatortzu be?

ANTONI. —Safrie akabaten danien otorko dala abixeten dost.

MODESTA. —Aurduen erostie dakozu etsie.

ANTONI. —Bai, baye nik a otoi baño lelau gure neki ogetamar mile erielak ornidu.

MODESTA. —¡Auri de fiñien yokatutie, Antoni!

ANTONI. —Amañarabari dakotzataz amazortzi mile eriel kendute... ta amabi mile eriel faltataz dirue konpletateko.

MODESTA. —¡Etsien konture ataratie dakozu!

ANTONI. —Dirue nok omon etxast falta... baye, neu zeugaz akorda nai iñogaz baño lelau.

MODESTA. —Ondo eĩn-zu... gaur eziñ fidxeleitxike iñogaz da.

ANTONI. —Aurẽitxik... iñori esan baño lelau... eĩn-dxot eze... Modestari esan bitzat.

- MODESTA.—Ezaitxut akonsejaten, alabatxü...; zeitxik eze... akaso etxako gusteko zure gixonari.
- ANTONI. —Areri, ez kasurik eiñ Modesta. Nik lelau be aren ixilien oki-taz sei mile eñiel baforatan imindxe.
- MODESTA.—¡Grasidxek ondo urten batzu!
- ANTONI. —Bai, ni kontentu nau neure suertiegaz. Politxo omon dostie.
- MODESTA.—Baforatan dirue oki bazu... aur dakona enparadue orni-duteko beste.
- ANTONI. —¡Ene alabie... eztozu dirue galduko!
- MODESTA.—Edo akaso bai... ¿nok taki be?
- ANTONI. —¡Kreditxu ona omotestazu, Modesta!
- MODESTA.—¡Ez ona, ez txar! ¿No-taki be zer suerta leixiken?
- ANTONI. —¡Modesta... desigualeko berbie diñoztazu!
- MODESTA.—¿Desigualeko berbie? ¡Ondo konsagra-ixu... ta zeuk ikusko-zu eñosoizko gauzie bada bia!
- ANTONI. —¿Da olan... *sin masien* itxiko nozu?
- MODESTA.—¿*Sin masien*? ¡Ez, Antoni!
- ANTONI. —¡Bai... uste bako gauzie diñoztazu tel
- MODESTA. —¿Zeuk eztiñozu dirue bako-zule? ¡Ene alabie-e! ¡Zeuk diñozu guztidxel.. edo iñori omoteko dakotela dirue pentsaten-zu?
- ANTONI. —¡Modesta... asko da zeuetzako ori berbiori esan biaña! ¡Ondo ezetute oki-dot nik, zuk eztozune eiñ gure niri mesederik! ¡Bestelakue omo-testazu! ¡Baye... itxi geldik!.. ¡Ondiño ekarko dau gauzisionek bueltie! (Doa asatez). ¡Nongue da berau... señora andidxau!
- MODESTA.—(Doala). Niri dirue kendukos-tazule pentsaten bazauz...
¡ondo pentsaten zauz!

PITXAR BETE UR

ALKAÑIZKETA

PITKAR BETA MR

ALHARISKEIA



PITXAR BETE UR

Talagotxirik Tofonterurantz dagoan kale mustufean, topez egiten dabe Bitxori ta Felixek. Bitxori amasei urte inguruko, Bermeon esaten dabien legez, plasa-neskatil urten bat eta mutil susmoan beti dabilena da. Felixek amazotzi urteren bat aldaukaz eta mutil aizkofa da bera beñepeln.

BITXORI. — (Amantalan ertza oratuaz). Ikusi zaitxut atzo, txalüpen otor-zararien.

FELIX. — Neu-pe ikusi zaitxut. ¿Nogaz on zara berbetan?

BITXORI. — ¿Eletorigaz on nai müxikeko kontuek esaten.

FELIX. — ¿Esan-tsazu Kosek zer esan dauen?

BITXORI. — Etxast akorda; baye ondiño esan bitsat.

FELIX. — ¡Asafatu eiño da baye!

BITXORI. — Gatx bi okiko-txuz. Berentzako txarau.

FELIX. —Bera tako kulpie, Kose fromal ibildxe ta.

BITXORI. —Etxako Kose ainbeste gusteten. Gurau dotzu arek mariñu bategaz ezkondu. Lapurtxunekuegaz eiñ-dxeu domekan yantzaldi bat... da ilusiñoz beterik dako zu.

FELIX. —¡Aregaz ez pentsatie dako bat Nobidxie dako arek kanpoko eridxen.

BITXORI. —¿Ezta ezango egidxe?

FELIX. —Bai... fijue da; neuri esan dost Mal-kosiñerok.

BITXORI. —¡Olan bada... zetan pentsa eztako!

FELIX. —Da, ganera... Kose baño mutil onaurik eztau topako.

BITXORI. —Baye a... beti ezan-dxatzu *no quiero mariñero*.

FELIX. —¡Kontuen oki zer diñotzuten! Damutu eiñgo-dxako ondiño.

BITXORI. —Beren etsekuek etzue gure iñogaz etxie... Antonegaz baño.

FELIX. —¿Zeiñ Anton?

BITXORI. —Bere nebie.

FELIX. —¿Neblegaz... zelan ezkonduko da ba?

BITXORI. —Urikue yatzu baye a.

FELIX. —¿Euren afellidue eztako ba?

BITXORI. —Eurentzak artunde dakoyelako.

FELIX. —¿Ori kontue, zelan da ba? A... *askakue* ezan... da Atoñasagasti okitxie; da... ni bariz urikue ezan barik Bilbao ezatie?

BITXORI. —Itxi oñeri kontueri atzera. ¡Entzuixu!.. Eguenien; ¿zeitxik ezara otoñi müxikera?

FELIX. —Trabenan on nai lagunekaz.

BITXORI. —¡Ene semie, ez pentsatie iñor begire okiko-zunik!

FELIX. —Akorda eiñ-dxast, baye... ez mobitiären ezan da.

BITXORI. —¡Señalie da... nigaz asko pentsaten zune!

FELIX. —Ara... egidxe da... beti nau zeugaz pentzaten. Zeure pen-

tsamentue okitxen dot itz-zuen be. Atzo be... Antsermok eta bldxok zeure kaerie okidu.

BITXORI.—¡Bai... mutileri siñistutie baño eztau!

FELIX. —¡Jainkuen egidxe diñotzut; pregunte ostantzien Antsermori.

BITXORI.—Ezto-kure Antsermogaz konturik. ¡Etxa gatza!

FELIX. —Beti oten da zeure mando ba.

BITXORI.—¡Maskarien arpidxe be eztako arek txikidxe! Esango-tsazu neure partez... urungotan gureñe erimeten danien, etzatela arpire be beituko.

FELIX. —¿Zer eiñ-tzu be?

BITXORI.—¡Gixonal.. ¿ondo deitxazu?.. ¡Muxikie akabata gero Kalebaridxetan gabiltzela... geure ondofik pasa abilanak yaten... da guri kasurik-pezu berak! ¡Itxi geldik!

FELIX. —Ezan fijeko.

BITXORI.—Zu-pe... ezaixu defendidu; ondiño geuk esantsagu: bota guri be abillanatu batzuk; da berak, jezta nogaz dauen be!

FELIX. —Aur dakozu señaie... distraidamentuen on-dana.

BITXORI.—¡Danok zarie zuek igualak! Distraidamentue imitxen-zue zuek aurretik, zeueri komeniten yatzuenien.

FELIX. —¿Urunguen be etzue paga sagardaue ba?

BITXORI.—¡Bai... aze gauzie! Da ganera... bera be ondo kostata. Eletori on-dalako... ostantzien ez pentsa gueitxik pagako zauenik.

ANDRA BAT.—(Talagoitxi aldekk). ¡Agur zeueri! ¿Goixetik asi zarie... eh? ¿Formal zabilteze zeuok? Ondo da... ariñ akordatie. (Doala). ¡Nonguek die ime mokofidok!

FELIX. —Zeueneko amari esango-tso.

BITXORI.—Esan deidxola... eztost ardure da. ¡Pasa dan domekan be... eztost niri omon arek desgustue makala,... zeu zarala ta eztala!

FELIX. —¿Zer ba?

BITXORI. —¿Müxikie akabata gero... zelan yuen garien iru uturidxetara ur freskue edaten?

FELIX. —¡Bail

BITXORI. —Geure tie on-dxatzu bertan edaŕie garbitxuten... da, gero arek ¿zer eiñ-dxeu?.. etsera yuen daneko geure amari esan zelan on-nayen zeugaz berbetan.

FELIX. —¿Da... zer esan-tzu?

BITXORI. —¿Esan?.. ¡Esanak ez tie ezer,... geidxau ezpaleitxike!

FELIX. —¿Zer eiñ-tzu be? ¿Yo eiñ zaitxuz?

BITXORI. —Belari eskiñeko bat omon dost lelau-lelau. Da gero... eres-pestie omon-tsatelako... eskatzeko aurkidxe tietu dost arpire. ¡Kalera eskapa ez-panauen... manga-manga etxen nau bertan beñepeñ.

FELIX. —¿Zer esan-tsazu be?

BITXORI. —¡Ene semie... auri de no perak baño geidxau yakiñ gurie! Tiek dako eru guztidxe; baye... ikusiko dau arek ondiño... ia nok etxen-tson arenadurie bia, bera geixorik dauenien. ¡Topa birko dau nok eiñ... beti beti neure kontra oteko!

FELIX. —¿Zeure mando oten dala... ezu esan urunguen ba?

BITXORI. —Bai, berari konbeniten yakonien. Aurduen be... imie yagoten oki nau ni arek gaueko zortziretararte frabiketik bera otoŕi arte.

FELIX. —¡Zeuk dakozu eru guztidxe, oneidxe zaralako! ¡Ni, zure lez baneitxike, mengako nekitzat!

BITXORI. —¡Itxi geldik! ¡Otoroko da a ondiño imiek yagoteko esaten, bera frabikera yuen bi-dauenien; baye, neuk yakiñ-got zer eiñ!

FELIX. —Zeu be, frabikera yuen bi-lekizara.

BITXORI.—Belentzigaz nau baye, saregiñien ikasten yueteko. Aurduen oki-ku erie berbetan oteko.

FELIX. —¿Non o-ten da ba... sarie konponduten?

BITXORI.—Kofradidxen be oten da; baye geidxenetan Bentapien.

FELIX. —¿Zeiñ lekuten? ¿utuñi bidxetan?

BITXORI.—¡Ene semie... Tiadoriñ baño txaraue zara zeu! ¿Etzut esan kofradi zariñ oten dala?

FELIX. —¡Ez... ezu esan! Entzun, Bitxori, berbie. (Papafean joten dabela).

¿Egidxe da, zueneko amak, nieitxik zantar bat nayela esaten dauena?

BITXORI.—Areri ez kasurik eiñ. Beti yabil-tzu a geure ala.

FELIX. —Zeu konfrome bazauz... igual dost niri edozer esaten badau be. ¡Kintxetik natoñenien, neuk esango-tsat areril

(Barñro yotex dabela).

BITXORI.—¡Zauz geldik! ¿Organue nayela... beti-beti yoten-yoten ibiltzeko?

FELIX. —A propós eiñ-tzut; zer diñoztazun ikusteko.

BITXORI.—¡Zuek, danak zarie igualak! ¡Lotsagalduko batzuk!

FELIX. —¿Oñeitxik zer dau be?

BITXORI.—¡Gixona... bate-batek ikusten bazaitxuz be... ¿zer esango dau?

FELIX. —¿Mutil fromala enai be?

BITXORI.—Eztiñotzut ezeitxik; baye mesede eiñgo - zu urengotan eskue geldik okitxie.

FELIX. —¡Tire... etxamon oñeril! Entzun, Bitxori: Eletori txe Kasintxe, ¿zeitxik asaratu die ba?

BITXORI.—Mutilen gora-berieitxik esan-dxatzu.

FELIX. —¿Kasintxek pe nobidxue dako la?

BITXORI.—¡Inbididxe yatzu dana! Kasintxek pentsaten-tzu, beraitxik

datořela Antsermo gureñe, da beran konbertsasiñue baño etzu oki gure. Atso be m̃ixiken bera nondik ikusiko ibil-dxe:

FELIX. —¿Eletorigaz dabilena eztaki le?

BITXORI. —Yakl̃igo dau: eři guztidxen dau zabaldu te ta. Baye, a, bera yatzu alako nastera, nastera bat: *drogie topaten dabilena.*

ANDRA. —(Bafuko aldetik, etxeren bateko leyotik ballitzen). ¡Aur ořek... lotsabisteko zařok! ¡Ořek dakoye lotsiel!

BITXORI. —(Gorantz begira). ¡Ondo! ¿Zeure alabie ezta oten mutilekaz ela?

ANDRA. —¿Ikusten-zue gero... berori deskaradi-ori? (Indartsu). ¡Zueze ortik: *ejemplu txara imieri omoten on barik!*

BITXORI. —¿Zuk agindxuten-zu le?

ANDRA. —¿Nongue da berori... krientsabako enplastu ori? ¡Bestelakue a-ona... amama andidxori!

BITXORI. —¿Zuri zer dotzu be?... ¡Zeu ezango zara zu krientsa bakue! ¿Nondik dator berori?

ANDRA. —¡Ogon anpur baten bial!

FELIX. —¡Erdu emetik, Bitxori! Gozan Bastařera!

